

ANBULATEGIA ORAIN!

Auzoak osasun obeagoa izan dezan, urte asko borrokan eraman ondoren, Anbulategi berri baten eraiketaren momentu garrantzitsuan aurkitzen gara.

Gure ingurualdean egindako ikerketaren ondorioz, nahiz Euskal Jauria ritza, INSALUD eta Udaletxea, Anbulategi berria eraikitzearen aldekoak dira. Hau dela eta INSALUD-ek, Udaletxeari lur zati bat eskatu dio, Abuztuaren 31 baino lehen aurtengo presupostean egon dezan, esanez.


Gaur, eta Altzako Berregite Planak frontoi bat egiteko, auzoak beraren borrokaren bidez lortu zituen lurrak ditu. Hasieran bezala gaude, baina lur berriak lortzeko epea hilabete t'erdi bakarrik izateagatik, gure egoera askoz larriagoa da eta honek beste bi urte itxaronteko arrizkuan jartzen gaitu.

Hau dela eta, Altza, Herrera eta Larratxoko auzo elkarteek Udaletxearen jokabide salatu nahi dugu, bizilagunok borroka eta mobilizazioen bidez azaldu ditugun nahiak bastertu baitu. Auzoaren eritsiak kontuan hartu gabe bere proiektua egin du. Proiektu honek, Alkain jaunak auzoari emenda ko lurretatik, anbulategia kanpoan uzten zuen.

Legez, gureak diren lurrak, Udaletxeari kendu nahi badizkiogu, mobilizazioa behar beharrezkoa iruditzen zaigu. Esperientziak zera esaten digu, gure eskakizunak bakarrik mobilizazioaren bidez lortu ditzakegula. Isintzen baldin bagara eta "kontzejal demokratikoen" gan konfidantza jartzten badugu, gurekin kontatu gabe dena egin eta desegingo dute.

AURTEN ANBULATEGI BERRIA LORTZEA ZUREGAIN DAGO! AUZOAREN OSASUNA ALDATZEA ZUREGAIN DAGO! ZURE AUZOAN EGITEN DEN ASANBLADARA JOAN ZAITEZ!

- Asteazkena 15, arratsaldeko 8-retan, Larratxo Auzo Elkartearen gelan.
- Osteguna 16, ordu berberan, Herrera Auzo Elkartearen gelan.
- Ostirala 17, ordu berberan, Altzako eskola zaharretan.



ANBULATEGIA, NON?

**TERRENOEN ORAIN EMATEA EXIJI DEZAGUN!!
OSASUN HERRIKOI BATEN ALDE, ANBULATEGIA ORAIN!!**

ALTZA, HERRERA ETA LARRATXOKO AUZO ELKARTEAK. S. JOSE DE GALASANZ ETA OLETA IKASTETXETAKO GURASO ELKARTEAK.